



Liburuak nire begi magikoak dira

Orain dela urte asko, Kapil izeneko mutiko bat bizi zen antzinako Indian. Mutikoak oso gustuko zuen irakurtzea, jakin-min handikoa baitzen. Haren gogoan galderak sortu ohi ziren etengabe. Zergatik ote zen eguzkia biribila eta zergatik aldatzen ote zen itxuraz ilargia? Zergatik hazten ote ziren zuhaitzak? Zergatik ez ote ziren erortzen izarrak zerutik?

Kapilek jakintsuek idatzitako palmera-orridun liburuetan bilatu ohi zituen galdera haientzako erantzunak, eta bilatutako liburu guztiak irakurri ohi zituen.

Egun batean, Kapil liburu bat irakurtzen ari zen gogo handiz, eta haren ama honela esan zion pakete bat emanez: "Ultz ezazu liburua eta eraman iezaiozu aitari jatekoa, oso goseturik izango da eta".

Kapil liburua eskuan zuela altxa zen, eta paketea harturik bideari ekin zion. Bidezidor zail eta malkartsuan barrera ere liburua irakurtzen jarraitu zuen, harik eta bat-batean harri batekin tupust egin zuen arte. Estropezu egin eta erori egin zen, eta ondorioz, hankako behatzetik odoletan hasi zen. Kapil altxa egin zen eta irakurtzen jarraitu zuen, begiak liburuari josirik balitu bezala. Bat-batean bere oinak harri baten aurka egin zuen talka. Estropezu egin eta erori egin zen, eta ondorioz, hankako behatzetik odoletan hasi zen, baina oraingoan askozaz ere min handiagoa hartu zuen. Palmera-orriko testuak, ordea, oinaze hura ahantzarazi zion.

Bat-batean, argi-izpi bat agertu zen eta, harekin batera, barre-hots ezta entzun ahal izan zen. Kapilek begirada altxa zuen. Sari zuriz jantzirik zen eta burua aureola batez inguraturik zuen emakume eder batek irribarre egiten zion. Emakumea zisne zuri dotore batean eserita zegoen. Arku zeraman esku batean eta veena (sokazko musika-tresna) beste bi eskuetan. Laugarren eskua luzatuz mutikoari zuzendu zitzaion, eta honela esan zion: "Seme, zure jakinduria-grinak hunkiturik nauka. Dohain bat emango dizut. Esadazu, zer da gehien desira duzuna?".

Kapilek harriturik kliskatu zituen begiak. Saraswati, jakinduriaren Jainkosa, aurrez aurre zuen. Berehala, eskuak elkartu eta makurtu egin zen honakoa xuxurlatuz: "Jainkosa, mesedez, eman iezaizkidazu oinetarako beste bi begi, oinez nabilen bitartean irakurri ahal izan dezadan".

"Hala izen bedi", onetsi zuen Jainkosak. Kapilen burua ukitu eta zeruko hodei artean desagertu zen.

Kapilek beherantz begiratu zuen. Beste bi begi kliskatzen ari ziren bere oinetan. Pozak zoratzen jarri zen. Basoko bidexka malkartsuetan barrera korrika ibili zen, begiak liburuan jarri zituela, oinek bidean aurrera eramaten zuten bitartean.

Irakurzaletasun grinatsu haren bidez, Kapil jakintsurik irakurrienetako bat bilakatu zen. Haren kondaira oso urrun heldu zen, bere jakinduria sakonaren eraginez. Beste izen bat eman zioten, "Chakshupad", sanskritoz "oinetan begiak dituen pertsona" esan nahi duena.

Saraswati irakaskuntzaren, jakinduriaren, musikaren eta mintzamenaren Jainkosa mitologikoa da.

Aipaturikoa Indiako antzinako kondaira bat da, jakintsuek palmera-orridun eskuizkribuetan idatzitako hitzen bidez jakinduria eskura zitekeela ohartu zen mutiko bati buruzkoa.

Liburuak gure begi magikoak dira. Jakinduria eta informazioa eskaintzen digute, baita bizitzako bide zail eta malkartsuetan aurrera egiteko argia ere.